Secretaría General

**ALMUDENA RODRÍGUEZ MOYA, SECRETARIA GENERAL DE LA UNIVERSIDAD NACIONAL DE EDUCACIÓN A DISTANCIA,**

**C E R T I F I C A:** Que en la reunión del Consejo de Gobierno, celebrada el día veintisiete de junio de dos mil diecisiete fue adoptado, entre otros, el siguiente acuerdo:

**08. Estudio y aprobación, si procede, de las propuestas del Vicerrectorado de Formación Permanente y Extensión Universitaria**

**08.19.** El Consejo de Gobierno aprueba el convenio de colaboración entre la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), la Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED) y la Sociedad de Estudios Vascos (Eusko Ikaskuntza), según anexo.

Y para que conste a los efectos oportunos, se extiende la presente certificación haciendo constar que se emite con anterioridad a la aprobación del Acta y sin perjuicio de su ulterior aprobación en Madrid, a veintiocho de junio de dos mil diecisiete.

Firmado digitalmente por:

Almudena Rodríguez Moya
Secretaria General (UNED)
arodriz@der.uned.es
913986566

C/ Bravo Murillo, nº 38
28015 Madrid

Tel: 91 398 81 51/ 65 26/27/28
Fax: 91 398 60 42

www.uned.es

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — eman ta zabal zazu

ASMOZ TA JAKITEZ — EUSKO IKASKUNTZA

| | |
|---|---|
| **LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKO IKASKUNTZAREN, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA URRUNEKO HEZKUNTZARAKO UNIBERTSITATE NAZIOANALAREN ARTEKOA.** | **CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (UPV/EHU), LA UNIVERSIDAD NACIONAL DE EDUCACIÓN A DISTANCIA (UNED) Y LA SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS (EUSKO IKASKUNTZA).** |
| Bilbo, 2017ko otsailaren 28an | En Bilbao, a xx de xxxxx de xxxx |
| Nekane Balluerka Lasa andrea, Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean UPV/EHU) errektorea, abenduaren 27ko 250/2016 Dekretuaren bidez izendatua, erakunde horren izenean eta ordezkari gisa, | Dª Nekane Balluerka Lasa, Rectora de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante UPV/EHU), cargo para el que fue nombrada por Decreto 250/2016 de 27 de diciembre de 2016, en nombre y representación de la misma. |
| Alejandro Tiana Ferrer jauna, Urruneko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren (aurrerantzean UHUN) errektorea, apirilaren 28ko 448/2017 Errege Dekretuaren bidez izendatua (apirilaren 29ko BOE), erakunde horren izenean eta ordezkari gisa, | D. Alejandro Tiana Ferrer, Rector Magnífico de la Universidad Nacional de Educación a Distancia, (en adelante UNED) cargo para el que fue nombrado por el Real Decreto 448/2017 de 28 de abril (BOE de 29 de abril), en nombre y representación de la misma. |
| Iñaki Dorronsoro Plazaola jauna, EI-SEVren lehendakaria, erakundearen ordezkari gisa, Guadalupe Maria Inmaculada Adanez Garcia Donostiako notarioaren 2016ko uztailaren 1eko eskrituran jasotzen den bezala, bere protokoloko 1.148 zenbakian. | D. Iñaki Dorronsoro Plazaola, Presidente de EI-SEV y en representación de la misma, según consta en la escritura autorizada por el notario de San Sebastián , Doña Guadalupe María Inmaculada Adanez García de 1 de julio de 2016, nº 1.148 de su protocolo. |
| **ADIERAZTEN DUTE** | **EXPONEN** |
| UPV/EHU, bere Estatutuetako 1. artikuluari jarraituz, zuzenbide publikoko erakundea da, autonomiaduna, nortasun eta ahalmen juridikoak dauzkana, eta gizartearen zerbitzura dagoena. Euskal gizartearen premiei erantzungo die bai eta historiak eta aldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturalek ekarritakoei ere. Kultura eta zientzia unibertsalaren jakintza ere zabalduko du gizartean, eta euskara eta euskal kultura bultzatuko ditu bereziki. | Que la UPV/EHU se configura, tal y como establece el art. 1 de sus estatutos, como una institución de Derecho Público, al servicio de la sociedad, que goza de autonomía y está dotada de personalidad y capacidad jurídica, dirigiéndose su actividad a satisfacer las necesidades de la sociedad vasca así como las derivadas de su historia y de sus transformaciones socioeconómicas, políticas y culturales, difundiendo en ella los conocimientos de la cultura, la ciencia universal, prestando atención principal a la cultura y a la lengua |

| | |
|---|---|
| | vasca. |
| Bestalde, UHUN Estatuko unibertsitate publikoa da, abuztuaren 18ko 2310/1972 Dekretuaren bidez sortua. Erakundearen Estatututetan, 1. eta 4. artikuluetan, jasotakoaren arabera, UHUN zuzenbide publikodun erakundea da, nortasun juridikoduna, eta bere eginkizunak betetzeko autonomia osoa daukana. Bere eginkizunetako bat da unibertsitatean hasteko aukera ematea edo ikasketekin jarraitzeko bidea eskaintzea gaitasun nahikoa izanda unibertsitate hori aukeratu dutenei, hain zuzen ere, dela erabilitako metodologiagatik, dela lan edo ekonomi egoeratik, bizilekuaren arazoengatik edo beste arrazoi batzuengatik aukera hori egin dutenei. Beste eginkizun batzuk ere baditu, besteak beste: hezkuntzarako programa iraunkorrak ezarri eta garatzea; lan arloko prestakuntza hobetu eta eguneratzea; eta unibertsitateko erkidego zabal eta anitza eratzea, oinarri zientifiko eta kulturala izango dituena. | Por su parte la UNED es una Universidad Pública de ámbito estatal creada por Decreto 2310/1972 de 18 de agosto. Tal como consta en el art. 1º de sus Estatutos, es una institución de derecho público, dotada de personalidad jurídica y de plena autonomía en el desarrollo de sus funciones, entre las que se encuentra el facilitar el acceso a la enseñanza universitaria y la continuidad de sus estudios a todas las personas capacitadas para seguir estudios superiores que la elijan por su metodología o por razones laborales, económicas, de residencia o cualquier otra; establecer y desarrollar programas de educación permanente, promoción cultural, perfeccionamiento y actualización profesional, y facilitar la creación de una comunidad universitaria amplia y plural, fundada en conocimientos científicos y culturales. |
| Azkenik, Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos (EI-SEV) erakunde zientifiko kulturala da, izaera iraunkorduna, helburutzat daukana euskal kultura garatzea zenbait balio bitarteko direla, besteak beste: Euskal Herriarekiko konpromisoa, kultura aniztasuna eta solidarioa, zientzia eta kulturarekiko konpromisoa, ideologia aniztasuna, elkarrenganako errespetua, elkarrizketa berrikuntza, aurrerabidea eta euskararen babesa. Internet bidezko prestakuntza bultzatzeko xedez, 2002. urtean Asmoz Fundazioa eratu zuen. | Por otra parte, Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos (EI-SEV) se configura como una institución científico-cultural estable y duradera cuyo fin se centra en desarrollar la cultura vasca atendiendo a una serie de valores, tales como el compromiso con Euskal Herria, la cultura plural y solidaria, el compromiso con la ciencia y la cultura, la pluralidad ideológica, el respeto mutuo y el diálogo, la innovación y el progreso y la protección del euskera. Debido a su interés en impulsar la formación a través de Internet, en el año 2002 creó la Fundación Asmoz. |
| 1995eko uztailaren 17an, UPV/EHUk eta EI-SEVk lankidetza hitzarmena sinatu zuten bost urterako, aldeetako batek bertan behera utzi ezean, berez luzatzekoa. Horrela, lankidetza dinamikoa izan dute gaur egunera arte. | Con fecha 17 de julio de 1995 la UPV/EHU y EI-SEV firmaron un Convenio de colaboración de cinco años de duración, renovable automáticamente en caso de no existir denuncia del mismo, lo que creó hasta hoy una dinámica de colaboración entre ambas entidades. |
| 1999ko uztailaren 10ean, UHUNk eta EI-SEVk lankidetza hitzarmena sinatu zuten | Con fecha 10 de julio de 1999, la UNED y EI-SEV firmaron un Convenio de |

| | |
|---|---|
| bost urterako, aldeetako batek bertan behera utzi ezean, berez luzatzekoa. Horrela, lankidetza dinamikoa izan dute gaur egunera arte. | colaboración de cinco años de duración, renovable automáticamente en caso de no existir denuncia del mismo, lo que creó hasta hoy una dinámica de colaboración entre ambas entidades. |
| Esandako guztiak erakusten digu erakundeek helburu berak dituztela eta lankidetzan jarraitzeko gogoa. Beraz, aipatutako bi hitzarmenak sendotzeko, hitzarmen hau sinatu dute ondoko baldintzen arabera: | Los antecedentes mencionados muestran que las tres instituciones poseen objetivos comunes y desean seguir colaborando, por lo que firman el siguiente Convenio, que viene a reforzar los dos ya existentes arriba mencionados, conforme a las siguientes: |
| **BALDINTZAK** | **CLÁUSULAS** |
| **LEHENA: helburua**<br>Hitzarmen honen helburua da erakunde sinatzaileen lankidetzarako bitartekoak ezartzea, zerbitzuak optimizatzeko xedez oinarri bat bultzatzeko eta guztien artean jarduerak sustatzeko, horien bidez informazio eta komunikazio teknologiak euskarri dituzten ikasketak emateko, hain zuzen ere arlo hauetakoak:<br>• Graduondoko ikasketetako berezko tituluak<br>• Graduondoko ikasketa ofizialak<br>• Etengabeko prestakuntzako ikastaroak | **PRIMERA: Objeto**<br>El objeto del presente Convenio es instrumentar la colaboración de las instituciones firmantes para impulsar un marco de optimización de servicios y fomento de actividades conjuntas con el fin de facilitar la impartición de enseñanzas conjuntas con soporte en tecnologías de la información y de la comunicación, en los siguientes apartados:<br>• Títulos propios de estudios de posgrado<br>• Estudios oficiales de posgrado<br>• Cursos de Formación Continua |
| **BIGARRENA: lankidetza**<br>1. Lankidetzan hiru erakunde sinatzaileek hartu ahal izango dute parte, edo bik beren artean. Zereginak hiru erakundeen artean banatuko dituzte, bakoitzaren izaeraren arabera.<br>2. Lankidetza garatzeko baldintza zehatzak, erakunde partaideak eta bakoitzaren zereginak kasuan kasuko titulu edo programaren eranskinean jasoko dira. Lankidetzaren helburu nagusia ikasketa birtualak ematea bada ere, ez da albo batera uzten ikasgelako jardueretako ere lankidetzan aritzea. | **SEGUNDA: Colaboración**<br>1. La colaboración podrá realizarse con la participación de las tres entidades o de forma bilateral entre cualquiera de las entidades firmantes. Las tres entidades se reparten el cometido, dependiendo de su propio carácter.<br>2. Las condiciones concretas del desarrollo de esta colaboración, las entidades implicadas en cada caso y sus cometidos se expresarán en un anexo específico para cada título o programa. Aunque se contempla como objetivo prioritario de esta colaboración la impartición de enseñanza virtual, no se excluye la posibilidad de colaboración en actividades presenciales. |

| | |
|---|---|
| **HIRUGARRENA: Hitzarmen honen helburu diren ikasketetarako proposamenak** | **TERCERA: Propuesta de las enseñanzas objeto de este convenio** |
| 1. Ikasketetarako proposamenak unibertsitate sinatzaileek egingo dituzte, bakoitzak bere arautegiari jarraituz. Graduondoko ikasketa ofizialen proposamenak kasuan kasuko erakundeari dagokion autonomia erkidegoari aurkeztu beharko zaizkio, erkidegoak aztertu eta onar ditzan. UHUNk Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari aurkeztu beharko dizkio. | 1. La propuesta de los cursos se realizará por las Universidades firmantes, de acuerdo con las respectivas normativas. En el caso de los estudios oficiales de posgrado, cada universidad presentará la propuesta para su estudio y aprobación a su Comunidad Autónoma, correspondiéndole ese papel al Ministerio de Educación, Cultura y Deporte en el caso de la UNED. |
| 2. Ikasketei unibertsitate sinatzaileek emango die balio akademikoa: graduondoko ikasketa ofizialak badira, urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuari jarraitu beharko diote; berezko tituluak eta etengabeko prestakuntzakoak badira, berriz, erakunde bakoitzaren arautegiari. Edozelan ere, bi unibertsitateek elkarrekin antolatutako ikasketa guztien berri izan beharko dute, bai eta ikasketetan parte hartzen duten ikasleen zerrenda ere. | 2. La validez académica de los cursos será otorgada por las Universidades firmantes, de conformidad con el Real Decreto 56/2005, de 21 de enero respecto a los posgrados oficiales, así como con la normativa propia de cada una de ellas respecto a los títulos propios y cursos de formación continua. No obstante, ambas universidades deberán tener cumplida constancia de todos y cada uno de los cursos impartidos de forma conjunta y la relación de los alumnos participantes en los mismos. |
| 3. Graduondoko titulua, bai ofiziala bai berezkoa, unibertsitate artekoa izango da, UPV/EHUren eta UHUNren artekoa, alegia, baldin eta bi erakundeek horrela erabaki badute, eta horrelakoetan, unibertsitate bakoitzak, gutxien dela, ikasketa planeko kredituen % 15 eman behar du. | 3. Un título de posgrado, sea oficial o título propio, será considerado interuniversitario UPV/EHU-UNED, cuando ambas Universidades así lo acuerden, debiendo impartirse por cada una de las universidades participantes al menos un 15% de créditos del plan de estudios. |
| 4. Ikasketa birtualak emateko, unibertsitate bietako baten plataforma erabili ahal izango da edo Asmoz Fundazioaren hezkuntza plataforma, ikastaro edo titulu bakoitzerako adostutakoaren arabera. | 4. La impartición de los cursos virtuales podrá realizarse a través de la plataforma de cualquiera de las universidades o de la plataforma educativa de la Fundación Asmoz, según se acuerde para cada título o curso. |

| | |
|---|---|
| **LAUGARRENA: Graduondoko ikasketa ofizialen gestioa** | **CUARTA: Gestión de los Estudios Oficiales de Posgrado** |
| Graduondoko titulu ofizialak lortzera bideratutako ikasketetarako zehaztuko den proposamenaren eranskinean jasota ageriko da zeintzuk izango diren baldintzak ikasketaren gestiorako: akademia arlokoak, administraziokoak eta ekonomiaren arlokoak. Horretaz gain, koordinazio lana, titulua emateko era, eta programaren edo tituluaren egitura akademikoa ere zehaztuko dira. Era berean, urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuak, unibertsitateko graduondoko ikasketei buruzkoak, adierazitako gainerako gorabeherak ere jasoko dira eranskinean. | Las condiciones generales de gestión académica, administrativa y económica de las propuestas de estudios de títulos oficiales de posgrado se determinarán en un anexo específico para cada título, en el que se especificará además la coordinación, forma de expedición del título y estructura académica del programa o título. En dicho anexo se especificarán las circunstancias exigidas en el RD 56/2005, de 21 de enero, que regula los estudios universitarios de posgrado. |
| **BOSGARRENA: Berezko tituluen eta etengabeko prestakuntzarako ikastaroen gestioa** | **QUINTA: Gestión de Títulos propios y Cursos de Formación Continua** |
| 1. Ikasleak onartzeko prozeduraz eta matrikularen gestioaz tituluaren edo ikastaroaren koordinazio lana bere gain hartu duen unibertsitatea arduratuko da (koordinatzailea bi unibertsitateen artean erabakiko dute).<br>Tituluaren edo ikastaroaren koordinatzailea aukeratzeko, ados jarri beharko dira bi unibertsitateak, eta aldian-aldian aldatu ahal izango da, baina epeak eta arduraldia bien artean erabakiko dituzte. | 1. La gestión de admisión y matrícula será responsabilidad de la Universidad que se determine como Coordinadora del título o curso, por mutuo acuerdo.<br><br>Las funciones de coordinación podrán ser rotatorias, para un mismo título, entre las dos universidades, en los plazos y periodos que éstas determinen de mutuo acuerdo. |
| 2. Titulua emateko prozeduraren arduraduna une horretan koordinatzailea den unibertsitatea izango da, eta hori izango da, era berean, errektore bien sinadura lortzeko prozeduraz arduratuko dena, baldin eta titulua elkarrekin antolatzen badute. | 2. La Universidad Coordinadora en el momento en que deba realizarse la expedición del título será también responsable de la expedición del mismo, y de los procedimientos para posibilitar la firma de ambos rectores, en el caso de los títulos conjuntos. |
| 3. Ikasketen gestio ekonomikoaz Asmoz Fundazioa ardura daiteke, baina eranskinean jasota ageri beharko dira gestio horretarako | 3. La gestión económica de los estudios podrá ser asumida por la Fundación Asmoz, estableciéndose con carácter previo en el |

| | |
|---|---|
| baldintzak eta ikastaroak edo tituluak izango duen aurrekontua. Horrela eginez gero, Asmoz Fundazioak ere sinatu beharko du eranskina. UPV/EHUko irakasleen eta koordinatzaileen ordainsariak unibertsitate horrek ordainduko ditu berezko ikasketetarako zehaztutako arautegiari jarraituz | correspondiente Anexo, las condiciones en las que ésta vaya a desarrollarse, así como el presupuesto del curso o título. En estos supuestos la Fundación Asmoz deberá firmar también el correspondiente Anexo. Los honorarios de los profesores y coordinadores que pertenezcan a la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea serán abonados en todos los casos a través de dicha Universidad, que aplicará al profesorado propio el régimen previsto para el tipo específico de Estudios de Posgrado. |
| 4. Berezko tituluaren irakaskuntzako gastuak guztiz ordaindu beharko dira ikasleen matrikularen bidez eta jasotako diru laguntzen bidez. | 4. Los gastos que genere la impartición del título o el curso deberán ser cubiertos en su totalidad por los ingresos abonados por los estudiantes en concepto de matrícula y por aquellas subvenciones o ayudas aplicables al caso. |
| 5. Edozelan ere, matrikularen bidez lortutako diru sarreren zati bat gastu orokorretarako gorde beharko da: % 10 koordinazio lana daukan unibertsitatearentzat, eta % 5, beste unibertsitatearentzat. | 5. En cualquier caso, se aplicará una retención sobre los ingresos de matrícula, en concepto de gastos generales, del 10% para la Universidad Coordinadora y del 5% para la otra universidad participante. |
| **SEIGARRENA: Beste unibertsitateen partaidetza** | **SEXTA: Incorporación de otras universidades** |
| Hitzarmen honen ondorioz edo babesean diseinatu edo emandako tituluetarako, aukera dago beste unibertsitate batzuen partaidetza izateko, betiere, bi alderdiak ados badaude. Horrela eginez gero, baldintzak partaidetzarako sinatu beharko den agirian jaso beharko dira. | Los Títulos diseñados o impartidos como consecuencia y bajo la regulación de este Convenio estarán abiertos a la incorporación de otras Universidades, por acuerdo de todas las partes, en los mismos términos o en los que se especifiquen en el correspondiente documento de adhesión. |
| **ZAZPIGARRENA: Jarraipen Batzordea** | **SÉPTIMA: Comité de Seguimiento** |
| Jarraipena, ebaluazioa eta planifikazioa egiteko xedez, Jarraipen Batzordea eratuko da, guztira sei kide izango dituena: hitzarmena sinatzen duten erakunde bakoitzeko bi kide. Batzorde horren | A efectos de seguimiento, evaluación y planificación, se crea un Comité de Seguimiento, formado por al menos seis personas, dos por entidad firmante. Corresponde al citado Comité velar por el |

| | |
|---|---|
| zeregina da erakunde bakoitzak hartutako konpromisoak bete egiten direla zaintzea, bai eta hitzarmen honen babesean egindako jarduerak ebaluatzea ere, Batzordeak urtean gutxienez bi bilera egingo ditu, bai eta erakunde bakoitzak idatziz eskatutako guztietan ere (eskaria gutxienez astebete lehenago egin beharko da). Urtean urteko txostena egin beharko du eta bertan jasota ageri beharko dira aurreko ekitaldian egindako jarduerak eta hurrengorako proiektuak. | correcto desarrollo de los compromisos adquiridos por cada institución, así como la evaluación y la planificación de actividades a realizar al amparo de este Convenio. El Comité de Seguimiento se reunirá, por lo menos, dos veces al año, y siempre que cualquiera de las entidades lo pida por escrito y con una semana de antelación. Esta comisión elaborará una memoria anual donde se recojan las actividades desarrolladas en el ejercicio anterior y los proyectos a realizar en el ejercicio siguiente. |
| **ZORTZIGARRENA: eranskina** | **OCTAVA: Anexo** |
| Urtero-urtero hitzarmenaren eranskina egingo da, ikastaroen eskaintza zehazteko eta horietako bakoitzerako gestio akademikoa eta ekonomikoa nola egingo den jasotzeko. | Todos los años se confeccionará un Anexo al Convenio que recogerá la oferta de cursos y las condiciones concretas de gestión académica y económica de cada uno de ellos. |
| **BEDERATZIGARRENA: zabalkundea** | **NOVENA: Difusión** |
| Ikastaroen berri emateko asmoz, unibertsitateek beren eskaintzan jasoko dituzte hitzarmen honi jarraituz Asmoz Fundazioak antolatuko dituen ikastaroak. | Ambas Universidades se comprometen a incluir los cursos realizados con la Fundación Asmoz, por aplicación de este convenio, entre su oferta a efectos de difusión y publicidad. |
| **HAMARGARRENA: jabetza intelektuala** | **DÉCIMA: Propiedad intelectual** |
| Hitzarmen honi jarraituz sortutako idatzi, agiri eta gainontzeko ekarpenek unean-unean jabetza intelektualari buruz indarrean dagoen legediaren babesa izango dute. | Los escritos, documentos y demás aportaciones que, en el marco del presente convenio se haya venido desarrollando se someterán a la legislación que sobre propiedad intelectual se halle vigente en cada momento. |
| **HAMAIKAGARRENA: aldaketak** | **DECIMOPRIMERA: Modificación** |
| Alderdiak ados jarriz gero, hitzarmen honen edukia aldatu ahal izango da agiri honi eranskin bat eginda. Urtean-urtean sinatutako eranskina ere aldatu ahal izango da hiru alderdiak ados egonez gero. | Se podrá modificar el contenido de este Convenio, siempre y cuando exista un acuerdo por las partes, lo que podrá realizarse a través de un Anexo al presente documento. Igualmente, el Anexo anual firmado podrá ser motivo de modificación si así lo establecieran las tres entidades firmantes. |
| **HAMABIGARRENA: araubide juridikoa** | **DECIMOSEGUNDA: Régimen Jurídico** |

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ASMOZ TA JAKITEZ EUSKO IKASKUNTZA

| | |
|---|---|
| Hitzarmen hau, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako errege-dekretuak onartutako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 4.1.c) eta 4.1.d) artikuluan kokatzen da, eta ondorioz, bere zuzeneko aplikazioa baztertzen den arren, lege honen printzipioak aplikatuko dira sortu daitezkeen zalantzak eta urmaelak ebazteko. Lankidetza hitzarmen hau interpretatu eta betetzerako orduan sor daitezkeen eztabaidak, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoetarako arloaren menpe geldituko dira, aipatutako eskumena arautzen duen uztailaren 13ko, 29/1998 legeak ezarritakoaren arabera. Aurrekoaren kalterik gabe, hitzarmen honen garapenean eman daitekeen edozein desadostasun modu adiskidetsuan konpontzeko hitza ematen dute UPV/EHUk, EI-SEVk eta UHUNk. | El presente Convenio de Colaboración se encuadra en el articulo 4.1.c) y 4.1.d) del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, y por tanto, excluido de su aplicación directa, si bien se aplicarán los principios de dicha ley para resolver las dudas y lagunas que puedan presentarse. Las controversias a que pueda dar lugar la interpretación y cumplimiento del presente convenio de colaboración, quedarán sometidas al conocimiento y resolución de la Jurisdicción Contencioso-administrativa, de conformidad con lo previsto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la citada jurisdicción. Sin perjuicio de lo anterior, la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, la Sociedad de Estudios Vascos y la UNED se comprometen a resolver de manera amistosa cualquier desacuerdo que pueda surgir en el desarrollo de este convenio. |
| **HAMAHIRUGARRENA: iraupena eta ondorioak** | **DECIMOTERCERA: Duración y efectos** |
| Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du sinatzen den momentutik aurrera, alderdiek beste lau urtez luzatzea adostu ahal izango dute haietako batek kontrakorik adierazi ezean, adierazpen hori, betiere, iraunaldia bukatu baino gutxienez 2 hilabete lehenago egin beharko da. Kasu horretan, salaketa egiten den unean jadanik hasita dauden ikastaroak bere amaierararte mantenduko dira. | El presente Convenio tendrá una vigencia de cuatro años desde el momento de su firma, pudiéndose acordar por ambas partes su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales, salvo denuncia expresa de alguna de las partes, efectuada, en todo caso, con una antelación mínima de dos meses a la fecha de finalización del mismo. En tal caso, se mantendrán hasta su finalización los Cursos iniciados en el momento de la denuncia. |
| Hitzarmenaren edukia irakurrita eta sinatzaileek, kasuan kasuko erakundearen izenean eta ordezkari gisa, bertan jasotakoaren onespena emanda, hitzarmenaren hiru ale sinatzen dituzte arestian adierazitako leku eta egunean. | Tras la lectura del texto de este Convenio y contando con la aprobación de los abajo firmantes en nombre y representación de sus respectivas instituciones, lo firman por triplicado en el lugar y fecha arriba mencionados. |

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO IKASKUNTZA

| Por la UPV/EHU | Por la UNED |
| --- | --- |
| Nekane Balluerka Lasa | Alejandro Tiana Ferrer |
| Por EI/SEV | |
| Iñaki Dorronsoro Plazaola | |

**ANEXO AL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (UPV/EHU), LA UNIVERSIDAD NACIONAL DE EDUCACIÓN A DISTANCIA (UNED) Y LA SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS (EUSKO IKASKUNTZA).**

**"DERECHO DEL COMERCIO INTERNACIONAL":**

Títulos Propios de "Máster Universitario" y "Especialista Universitario" de la UPV/EHU y la UNED.

**IMPARTICIÓN:** Virtual. Plataforma educativa de la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

**GESTIÓN:** En la convocatoria 2016-2017 actuará como Universidad coordinadora la UNED.

**ADMISIÓN DE ESTUDIANTES:** será responsabilidad de los directores académicos según los criterios de la Universidad coordinadora. Los alumnos y alumnas serán considerados conjuntamente alumnos y alumnas de ambas universidades.

Las personas admitidas que deseen preinscribirse realizarán la solicitud en la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

**MATRÍCULA:**

Las personas admitidas en el Posgrado entregarán la documentación relativa a su matrícula en la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos. Ésta, por su parte, remitirá la documentación necesaria para formalizar la matrícula al Departamento de Aprendizaje Permanente de la UNED.

El Departamento de Aprendizaje Permanente de la UNED comunicará a la Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Continua de la UPV/EHU la lista de matriculados y matriculadas que, desde ese momento, tendrán la consideración de estudiantes de ambas universidades.

**GESTIÓN DE LOS GASTOS:**

La organización y gestión económica del Máster se llevarán a cabo por parte de la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos conforme al siguiente procedimiento:

los y las estudiantes ingresarán los importes correspondientes a la matrícula en la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos. Los gastos que genere la impartición del título propio deben ser cubiertos en su totalidad con

los ingresos abonados por los/las estudiantes en concepto de matrícula y por otras aquellas subvenciones o ayudas que perciba la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.
La gestión de los aludidos gastos será realizada por la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, que ingresará a la Universidad coordinadora el 10% de los ingresos de matrícula, en concepto de gastos generales y un 5% a la otra Universidad participante.

Para el pago al profesorado y/o coordinadores y coordinadoras que correspondan a la Universidad del País Vasco/EHU, la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos se compromete a librar las cantidades correspondientes a dicha Universidad para que sea esta quien, vía el procedimiento que estime oportuno y aplicando su normativa interna, proceda a liquidar esas cantidades con cada uno/a de ellos/as.

Para el pago al profesorado y/o coordinadores que correspondan a la UNED, Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos se compromete a librar las cantidades correspondientes a dicha Universidad en la cuenta corriente del Banco de España SWIFT: ESPBESMM - IBAN: ES8690000001200250129929, para que sea esta quien, vía el procedimiento que estime oportuno y aplicando su normativa interna, proceda a liquidar esas cantidades con cada uno/a de ellos.

**EXPEDICIÓN DEL TÍTULO:**

La Universidad coordinadora será la responsable de la tramitación, expedición y registro de un único título propio conjunto de posgrado para quienes hubiesen superado las correspondientes enseñanzas.

Por la UPV/EHU

Fdo.: Nekane Balluerka Lasa

Por la UNED

Fdo.: Alejandro Tiana Ferrer

Por EI/SEV

Fdo.: Iñaki Dorronsoro Plazaola

**ERANSKINA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN (UPV/EHU), URRUNEKO HEZKUNTZARAKO UNIBERTSITATE NAZIONALAREN (UHUN) ETA EUSKO IKASKUNTZAREN ARTEKO HITZARMENARENA.**

**"NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN ZUZENBIDEA":**

UHUN-ren eta UPV/EHU-ren "Berezko Masterra" eta "Unibertsitateko Espezialista" berezko tituluak.

**EMATEKO MODUA:** Birtuala. Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioaren hezkuntza plataforma.

**GESTIOA:** 2016-2017 deialdian, Unibertsitate koordinatzailea UHUN izango da.

**IKASLEEN ONARPENA:** Zuzendari akademikoen ardura izango da, Unibertsitate koordinatzaileak finkatutako irizpideen arabera. Ikasleak, unibertsitate bietako ikasle izango dira.

Izena eman nahi duten onartutako pertsonek Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioan egingo dute eskaera.

**MATRIKULA:**

Masterrean edo espezialistan onartutako pertsonek, matrikulari dagokion dokumentazioa, Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundaziora bidaliko dute; honek, era berean, matrikula formalizatzeko beharrezkoa den dokumentazioa, UHUN-ren Ikaskuntza Iraunkorreko Sailari bidaliko diolarik.

UHUN-ren Ikaskuntza Iraunkorreko Sailak UPV/EHU-ren Berezko Ikasketetako Unitateari matrikulatuen zerrenda jakinaraziko dio, haiek, momentu horretatik aurrera, unibertsitate bien ikasletzat hartuz.

**GASTUEN GESTIOA:**

Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa master edo espezialistaren antolaketa eta gestio ekonomikoaz arduratuko da, modu honetan:

Ikasleek matrikulari dagozkion zenbatekoak Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioan ordainduko dituzte. Berezko tituluaren irakaskuntzako gastuak guztiz ordaindu beharko dira ikasleen matrikularen bidez edo Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak jasotako diru laguntzen bidez.

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

ASMOZ TA JAKITEZ EUSKO IKASKUNTZA

Aipatutako gastuen gestioa Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak egingo du, gastu orokorren kontzeptupean, matrikularen bidez lortutako diru sarreren % 10-a koordinazio lana daukan unibertsitatearentzat gordez eta % 5-a, beste unibertsitatearentzat.
Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak, UPV/EHUko irakasleen eta koordinatzaileen ordainsariei dagozkien zenbatekoak unibertsitate hari igortzea hitzematen du, unibertsitate horrek, egokitzat jotzen duen prozedura eta barne arautegia jarraituz, bakoitzari dagozkion zenbatekoak kitatu ditzan.

Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak, UHUNko irakasleen eta koordinatzaileen ordainsariei dagozkien zenbatekoak unibertsitate hari ordaintzea hitzematen du, Espainiako bankuaren kontu korronte honetan: SWIFT: ESPBESMM - IBAN: ES8690000001200250129929; unibertsitate horrek, egokitzat jotzen duen prozedura eta barne arautegia jarraituz, bakoitzari dagozkion zenbatekoak kitatu ditzan.

**TITULUA EMATEKO PROZEDURA:**

Dagozkion ikasketak gainditu dituztenentzako, bakarra izango den, Berezko unibertsitate arteko master edo espezialista titulua kudeatu, eman eta erregistratzeko prozeduraren arduraduna, unibertsitate koordinatzailea izango da.

| UPV/EHU | UHUN |
|---|---|
| Fdo.: Nekane Balluerka Lasa | Fdo.: Alejandro Tiana Ferrer |

EI/SEV

Fdo.: Iñaki Dorronsoro Plazaola